

I - ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Diputatuen Kontseiluaren 489/2014 Erabakia, irailaren 30ekoa, behin betiko onartzen duena Oiongo udalerriko ondasun higiezinaren gaineko zergari lotutako hiri lurzoruaren mugaketaren aldaketa partziala

Uztailaren 29ko 519/2014 Foru Aginduaren bidez, behin-behineko onarpena eman zitzaion Oiongo ondasun higiezinaren gaineko zergari lotutako hiri lurzoruaren mugaketaren aldaketa partzialari. Aipatutako mugaketa hori egiteko, honakoak hartu ziren oinarritzat: batetik, apirilaren 20ko 215/2011 Foru Agindua, zeinak onartzen duen betetzea otsailaren 28ko 100/2011 Foru Aginduak, Oiongo udalerriko hiri antolamendurako plan orokorraren espedientea behin betiko onartu zuenak, ezarritako baldintzak eta, bestetik, ekainaren 11ko 274/2014 Foru Agindua, onartzen duena hiri antolamendurako plan orokorraren 2. aldaketa, industria lurzorian baimendutako erabilerak gehitzeari dagokionez.

Uztailaren 19ko 42/1989 Foru Arauak, ondasun higiezinaren gaineko zerga arautzen duenak, bere 4. paragrafoko 11. artikuluan 15 eguneko epea ezartzen du egoki irizten diren alegazioak aurkezteko, baina epe hori igaro ondoren Oiongo Udalak ez du inolako desadostasunik adierazi hartutako erabakiarekin.

Horregatik, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak proposatuta eta Diputatuen Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hauxe

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Onartzea, honekin batera dauden 1: 1.000 eta 1: 2.500 eskalako planoekin bat etorritik, Oiongo ondasun higiezinaren gaineko zergari lotutako hiri lurzoruaren mugaketaren aldaketa partziala. Aipatutako mugaketa hori egiteko, honakoak hartu ziren oinarritzat: batetik, apirilaren 20ko 215/2011 Foru Agindua, zeinak onartzen duen betetzea otsailaren 28ko 100/2011 Foru Aginduak, Oiongo udalerriko hiri antolamendurako plan orokorraren espedientea behin betiko onartu zuenak, ezarritako baldintzak eta, bestetik, ekainaren 11ko 274/2014 Foru Agindua, onartzen duena hiri antolamendurako plan orokorraren 2. aldaketa, industria lurzorian baimendutako erabilerak gehitzeari dagokionez.

Bigarrena. Aurrekoa gorabehera, kontuan hartuko da uztailaren 19ko 42/1989 Foru Arauak, ondasun higiezinaren gaineko zergarenak, bere 2. artikuluko b) idatz zatiko 1., 2. eta 3. puntuetan xedatutakoa, herriguneetatik kanpo hiri ondasun higiezinak hartutako lurzoruei dagokienez.

Hirugarrena. Hirugarrena. Honako erabaki hau ALHAOn argitaratzea, bai eta lurralde historikoko egunkari salduenetan ere. Gainera, jendaurrean jarriko da 15 eguneko interesdunek egoki irizitako erreklamazioak aurkez ditzaten. Oiongo udaletxeko bulegoetan jarriko da jendaurrean, horrelaxe xedatzen baitute uztailaren 19ko 42/1989 Foru Arauak, ondasun higiezinaren gaineko zerga arautzen duenak, bere 11. artikuluan 5. paragrafoan, eta hura garatzen duen Diputatuen Kontseiluaren abenduaren 15eko 1080/1992 Foru Dekretuak, 7., 8. eta 9. artikuluetan.

Gasteiz, 2014ko irailaren 30a

Diputatu nagusia

JAVIER DE ANDRES GUERRA

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua

AITOR URIBESALGO LORENZO

Ogasun zuzendaria

JUAN IGNACIO MARTÍNEZ ALONSO